



EBALUAZIO DIAGNOSTIKO ZENTSALA 2020-2021

Lehen Hezkuntzako 4.a

**Bukaerako txostena
2021eko ekaina**

EBALUAZIO ATALA

AURKIBIDEA

1. Atarikoa	4
1.1. Salbuespenezko egoera	5
1.2. Ebaluazioaren izaera zentsala eta egokitzapenak.....	5
1.3. Matrikularen eta parte-hartzearen datuak.....	7
2. Hizkuntza gaitasuna, gaztelaniaz.....	8
2.1. Probaren deskribapena: galdera kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoak	8
2.2. Galderak: informazioa	12
2.3. Gaitasun mailak: esanahia	15
2.4. Emaidza orokorrak.....	17
2.5. Puntuazioen banaketa	20
3. Hizkuntza gaitasuna, euskaraz	21
3.1. Probaren deskribapena: galdera kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoak	21
3.2. Galderak: informazioa	26
3.3. Gaitasun mailak: esanahia	28
3.4. Emaidza orokorrak.....	30
3.5. Puntuazioen banaketa	33
4. Matematika gaitasuna.....	34
4.1. Probaren deskribapena: galdera kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoak	34
4.2. Galderak: informazioa	35
4.3. Gaitasun mailak: esanahia	37
4.4. Emaidza orokorrak.....	39
4.5. Puntuazioen banaketa	42
5. Hizkuntza gaitasuna, ingelesez	43
5.1. Probaren deskribapena: galdera kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoak	43
5.2. Galderak: informazioa	45
5.3. Gaitasun mailak: esanahia	47
5.4. Emaidza orokorrak.....	49

5.5. Puntuazioen banaketa	52
6. Aldagai sozioekonomiko eta kulturala	53
6.1. ISEKa nola lortu eta haren erabilgarritasuna	53
6.2. ISEKaren banaketa	57
6.3. Erregresio-zuzenak	59

1. Atarikoa

Hezkuntzako zuzendari nagusiak ekainaren 23an emandako 216/2020 Ebazpenean xedatuaren arabera, Hezkuntza Departamentuak ebaluazio diagnostikoa ezartzen du Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztientzat. Ebaluazio honek ondoko ezaugarriak ditu:

- Zentsala da, hau da, ikasle guztiek egin behar dute.
- Gaitasunen bidezkoa da, hau da, oinarrizko gaitasunak neurtzen ditu.
- Informazioa ematen die ikasleei eta haien familiei.
- Prestakuntzazkoa da eta orientabideak ematen ditu, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

2020-2021 ikasturteko ebaluazio diagnostiko zentsalean landu dira irakas-hizkuntzetako hizkuntza gaitasunak, matematika gaitasuna eta ingelesezko hizkuntza gaitasuna.

Errendimendu probak Ebaluazio Atalak prestatu ditu, irakasleek taldeka egindako lanetik abiatuta. Beraz, kanpokoak izan dira ikastetxeendako. Probak egun berberetan egin dira ikastetxe guztietan eta alde zuzenetik ezarritako irizpideen arabera zuzendu dira; irizpideak Atalak eman dituenak izan dira.

Ekainaren hasieran jaso zituzten ikastetxeek ikasleen emaitzak, banako txostenak egin zituzten. Ikasturtea bukatu ondoren, txostenok familiei eman zitzaizkien.

Egun beretan, ikastetxeek Educa aplikazioaren bitartez bakoitzaren estatistikoen txosten osoa eskuratu zuten. Hartan honako hauek agertzen dira: batez besteko puntuazioa, desbideratze tipikoa, gaitasun mailaren araberrako ikasleen banaketa, galdera bakoitzerako erantzun zuzenen ehunekoak, talde bakoitzaren batez besteko puntuazioa eta errendimenduaren eta ISEKaren (aldagai sozioekonomikoa) arteko erregresioaren informazioa. Ebaluatutako gaitasunaren araberrako informazioa tauletan eta grafikoetan eman da.

Bestalde, ikastetxe bakoitzak aukera dauka azken urteetako emaitzen bilakaera aztertzeko, zuzendaritza taldeak Educa plataformaren bidez eskura dituen grafiko batzuen bitartez. Txosten hauek honako hauen gaineko informazioa ematen dute gaitasun

bakoitzero: batezbesteko eraldatu eta zenbatetsiak, ekitate-tasak eta bikaintasun-tasak, mailen, generoaren eta ISEKaren arabera.

Txosten hau aurretik emandako informazioa osatzera dator. Ikuspegi orokorragoa ematen dio, Nafarroako Foru Komunitateko ikasle guztiak eta proben ezaugarriak ardatz gisa harturik. Txosten honetan garrantzi handia du gaitasun mailen esanahiak edo galdera bakoitzean ebaluatutako prozesuaren identifikazioak. Ikasleen puntuazioen banaketa islatzen duten histogramak aurkeztu dira eta banaketa normalarekiko konparazioa egin da.

Horretaz gainera, ataletako batek aztertzen du ikastetxeen batez besteko errendimenduaren eta ISEKaren batez besteko balioaren arteko korrelazioa. Gaitasun bakoitzari dagokion erregresio-zuzena irudikatzen da eta horri esker ikus daiteke zenbateko inpaktua edo eragina duen aldagai sozioekonomiko eta kulturalak ikastetxeen batez besteko errendimenduan.

1.1. *Salbuespenezko egoera*

2019-2020 ikasturtean zehar, osasun larrialdiak galarazi zuen Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak prestatutako Ebaluazio Diagnostikoko probak egitea, hain zuzen ere iaz arte 2008-2009 ikasturtetik hona etenik gabe egin direnak. Honek guztiak berekin ekarri du 2020-2021 ikasturte honetan lortutako emaitzak aztertu behar izatea salbuespenezko egoera kontuan izanik: batetik, LHko 4. maila ikasi dutenek ez zuten modu normalean bukatu LHko 3.a (aurtengo proben emaitzak etxeko bakartzeak alda ditzake), eta, bestetik, 2019-2020 ikasturtean puntuaziorik ez zen izan. Ondorioz, ikastetxeko emaitzak duela bi urte lortutakoekin erkatu behar dira.

1.2. *Ebaluazioaren izaera zentsala eta egokitzapenak*

2020-2021 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako 4. mailako matrikula, osotara, 7323 ikaslekoa izan zen. Ikasle horiei zuzendu zaie ebaluazio diagnostiko zentsala.

2020-2021 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 4. mailan matrikulatutako ikasle guztiek ebaluazio diagnostikoa eginga beharko lukete. Salbuesiak gertatzeko bi arrazoi aurreikusi dira:

1. LHko 4. maila ikasten dutenak, baldin eta curriculumean bi mailako edo gehiagoko atzerapena badute eta Curriculum Egokitzapen Esanguratsua badute edo errekupeazio-planak egiten ari badira LHko 1.eko edo 2.eko Matematika eta/edo Hizkuntza (gaztelania A/G ereduan edo euskara B/D ereduan) arloei dagozkien ikaskuntzak gainditzeko (EP1, EP2).
2. Berandu sartu diren ikasleak (ikastetxean urtebete baino gutxiago badaramate).

Halakorik bada, ikastetxeak bi aukera ditu beren ikasleendako egokiena egiteko: batetik, proba ez egitea edo, bestetik, egitea egokitzapenekin edo egokitzapenik gabe, ikasleen datuak sisteman sartu gabe.

Aurreko ikasturteetan bezala eta ikastetxeei proba diagnostikoak aplikatzea errazteko, Ebaluazio Atalak –Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroarekin koordinaturik– mugimenduaren, entzumenaren edo ikusmenaren desgaitasuna duten erroldatutako ikasleek probak egiteko egokitzapenak pertsonalizatu ditu. Helburua da kanpoko ebaluazio inklusiboagoa egitea. Hurrengo taulan ageri dira Lehen Hezkuntzako 4. mailan prestatutako proben egokitzapenak, hezkuntza premiaren mota aintzat hartuta.

Hezkuntza premia	Egokitzapen mota	Ikastetxe kopurua
Entzumen desgaitasuna	- FMren erabilera	10 ikastetxe
Ikusmen desgaitasuna	- Denbora gehitzea - Irudi ongi definitu eta kontrastatuak - Eskuko lupa elektronikoa erabiltzea	Ikastetxe bat

Ondoko tauletan azaltzen dira izaera zentsala eta egindako ebaluazioaren zabaltasuna ikusarazten duten datuak.

1.3. Matrikularen eta parte-hartzearen datuak

a) Orokorrak

	Lehen Hezkuntza: 4. maila	
	Kopurua	Ehunekoak
Zenbat matrikula	7322	% 100
Salbuetsitako ikasleak	296	% 4,04
Proba egin duten ikasleak*	7026	% 95,96

* Kopuru honen barnean daude gaitasun guztiak beharbada egin ez dituzten ikasleak, eskolan ez zeudelako.

b) Hizkuntza ereduaren arabera

	A/G ereduak		B/D ereduak	
	Kopurua	Ehunekoak	Kopurua	Ehunekoak
Zenbat matrikula	5376	% 73,42	1946	% 26,58
Proba egin duten ikasleak	5123	% 69,97	1903	% 25,99

c) Gaitasunaren arabera

Gaitasuna	Kopurua	Ehunekoak (matrikula osoaren gainean)
Hizkuntza-gaitasuna, gaztelaniaz	6964	% 95,11
Hizkuntza gaitasuna, euskaraz*	1899	% 97,58
Matematika gaitasuna	6953	% 94,96
Hizkuntza gaitasuna, ingelesez**	6941	% 94,95

* Kalkulatu da B/D ereduaren matrikulatutako ikasleen kopuru osoaren arabera (1946).

** Kalkulatu da ingelesezko hizkuntza-gaitasunaren proba egin duten ikasleen kopuru osoaren arabera (7310).

2. Hizkuntza gaitasuna, gaztelaniaz

2.1. Probaren deskribapena: galdera kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoak

Probak bi zati izan ditu: irakurriaren ulermena eta ekoizpen idatzia.

Irakurriaren ulermenerako probak askotariko bi testu ditu. Horrek ziurtatzen du irakurmena formatu, tipologia edo genero batean baino gehiagotan neurtuko dela. Zehazki, hauek ziren probako testuak: “¿Por qué los osos polares tienen la cola corta?” (testu jarraitu eta narratiboa) eta “Guía práctica de salud bucodental” (testu etena eta azalpenak ematekoa). Lehen testutik 17 galdera atera ziren eta bigarrenetik 12. Irakurriaren ulermenak, guztira, 29 galdera izan zituen. Horien artean, 26 galderak puntu 1eko balorazioa izan dute eta 3 galderak 2 puntukoa. Azkeneko kasu hauetan puntuazio partzialak onartu ziren (puntuazioa 32 da, gehienez ere). 29 galdera horietan landu ziren atazek zerikusia dute ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkatutako irakurketa prozesuekin. Halaber, galdera batzuk oso errazak izan dira (ikasleen % 97,31k asmatu dituzte) eta beste batzuk, berriz, oso zailak (ikasleen % 27,74k bakarrik asmatu dituzte).

Ekoizpen idatzian testu bat idatzi behar zen, aldez aurretik emandako ildo batzuei jarraikiz. Testu horren edukia eta zuzenketa-irizpideak atal honetan berean, beheago, zehazten dira.

Trebetasunak honela banatu dira:

Trebetasuna	Puntuazioa	Zenbat balio duen, puntuazio osoarekin alderaturik
<i>Irakurriaren ulermena</i>	32	% 71,11
<i>Ekoizpen idatzia</i>	13	% 28,89
GUZTIRA	45	% 100

Hurrengo taulan erakusten dira probako galderen zenbait ezaugarri: probaren zatia, tipologia (irekia edo itxia), esleitutako gehienezko puntuazioa eta irakurriaren ulermenean ebaluatutako irakurketa prozesua. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernoan.

Hizkuntza gaitasuna, gaztelaniaz
(Irakurriaren ulermena eta ekoizpen idatzia)

Galdera zenbakia	Mota	Puntuazioa	Zuzen erantzundakoen ehunekoa	Ebaluatutako prozesua	Zatia
1	Irekia	1	% 97,31	Informazioa aurkitzea	Irakurriaren ulermena (IU) <i>¿Por qué los osos polares tienen la cola corta?</i>
2	Itxia	1	%94,93	Interpretatzea	<i>¿Por qué los osos ...?</i>
3	Irekia	1	% 73,66	Interpretatzea	<i>¿Por qué los osos ...?</i>
4	Itxia	1	% 90,08	Interpretatzea	<i>¿Por qué los osos ...?</i>
5	Irekia	1	% 66,71	Edukiaren gainean hausnartzea	<i>¿Por qué los osos ...?</i>
6	Itxia	1	% 68,32	Informazioa aurkitzea	<i>¿Por qué los osos ...?</i>
7	Itxia	1	% 50,39	Interpretatzea	<i>¿Por qué los osos ...?</i>
8	Itxia	1	% 69,50	Informazioa aurkitzea	<i>¿Por qué los osos ...?</i>
9	Itxia	1	% 63,96	Interpretatzea	<i>¿Por qué los osos ...?</i>
10	Itxia	1	% 92,92	Interpretatzea	<i>¿Por qué los osos ...?</i>
11	Itxia	1	% 60,50	Integratzea: ulermen orokorra	<i>¿Por qué los osos ...?</i>
12	Itxia	2	% 78,63	Interpretatzea	<i>¿Por qué los osos ...?</i>
13	Itxia	1	% 77,61	Formaren gainean hausnartzea	<i>¿Por qué los osos ...?</i>
14	Itxia	1	% 71,61	Interpretatzea	<i>¿Por qué los osos ...?</i>
15	Itxia	1	% 54,85	Edukiaren gainean hausnartzea	<i>¿Por qué los osos ...?</i>
16	Itxia	1	% 87,98	Edukiaren gainean hausnartzea	<i>¿Por qué los osos ...?</i>
17	Itxia	1	% 69,66	Interpretatzea	<i>¿Por qué los osos ...?</i>
18	Itxia	1	% 64,72	Interpretatzea	Irakurriaren ulermena (IU) <i>Guía práctica de salud bucodental</i>

19	Itxia	2	% 70,32	Interpretatzea	<i>Guía práctica...</i>
20	Irekia	1	% 88,34	Informazioa aurkitzea	<i>Guía práctica...</i>
21	Itxia	1	% 78,06	Interpretatzea	<i>Guía práctica...</i>
22	Irekia	1	% 48,05	Interpretatzea	<i>Guía práctica...</i>
23	Irekia	1	% 74,40	Informazioa aurkitzea	<i>Guía práctica...</i>
24	Itxia	1	% 72,53	Informazioa aurkitzea	<i>Guía práctica...</i>
25	Itxia	1	% 62,21	Interpretatzea	<i>Guía práctica...</i>
26	Itxia	2	% 74,50	Interpretatzea	<i>Guía práctica...</i>
27	Itxia	1	% 27,74	Edukiaren gainean hausnartzea	<i>Guía práctica...</i>
28	Itxia	1	% 38,02	Integratzea: ulermen orokorra	<i>Guía práctica...</i>
29	Itxia	1	% 41,00	Formaren gainean hausnartzea	<i>Guía práctica...</i>
30	Irekia	13	% 62,80	Plangintza, aurkezpena eta ortografia, koherentzia, kohesioa, zuzentasuna eta egokitasuna	Idazmena
GUZTIRA		45			

Ekoizpen idatzia hauxe egin behar izan da: gutun bat idatzi urteak betetzen dituenaren festara etortzerik izan ez duen lagun bati. Gutun horretan kontatu beharko dio ospakizunean zer gertatu zen, baita beste alderdi batzuk ere. Ikasleak beharturik zeuden zirriborro edo eskemarako toki zehatz batean idaztera. Horretaz gainera, beren idatzian sartu beharreko puntu batzuk eman zitzaizkien, nahi bazuten erabiltzeko eta, orobat, adierazi beharrekoa egituratzen laguntzeko. Idazlanean bost alderdi hauek baloratu dira: Plangintza edo zirriborroa; aurkezpena eta ortografia; istorioaren koherentzia eta egokitasuna; kohesioa; eta zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna. Zirriborroak izan ezik (puntu bateko balioa izan du), denek munta bera izan dute puntuazio osoan: gehienez ere 3 puntu zati bakoitzak. Ondorengo tauletan, aplikatutako zuzenketa irizpideak zehazten dira:

	0 maila (0 puntu)	1. maila (Puntu 1)	2. maila (2 puntu)	3. maila (3 puntu)
Plangintza	Ez du erabili.	Erabili du ¹ .		
Aurkezpena eta ortografia	<p>Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 4. ikasmailarako.</p> <p>- Oso aurkezpen eskasa (zirrimarrak, marjinarik ez...)</p> <p>- Irakurtzeko oso zaila den letra.</p> <p>- Ortografia akats asko, baita oinarritzko hiztegia edo hitz larrien erabileran ere.</p>	<p>0 mailaren (desegokia) eta 2. mailaren (egokia ziklorako) arteko maila du.</p> <p>2. mailako eskakizunetako bi edo hiru bete ditu.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia du, honako eskakizun hauek betetzen dituelako:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <u>Txukun idatzita egotea</u> (ez dago zirrimarrarik...) ▪ <u>Letra argia, erregularra eta irakurterraza</u> ▪ <u>Marjinak</u> zuzen zehaztuak; plantillan emandako marjinak errespetatzen ditu. <p><u>Ortografia</u>: gehienez ere bost akats, testuak laburrak direnean. Zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean.</p> <p>Azentu grafikoetan egindako bost akatsek huts bat balitz bezala kontatzen dute.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <u>Letra larriak</u> erabiltzeko arauak betetzen ditu ▪ <u>Harridura- eta galdera-markak zuzen erabiltzen ditu.</u> 	<p>Lehen Hezkuntzako 4.eko curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 2. mailako lau eskakizunak bikain bete ditu; ortografia akats oso gutxi egin du. Azentu grafiko batzuk erabiltzen ditu.
Istoriaren koherentzia eta egokitasuna	<p>Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 4. ikasmailarako.</p> <p>- Ez du emandako ataza egoki bete.</p> <p>- Koherentziarik eta egiturarik gabeko istorioa kontatu du. Ez da erraza zentzurik aurkitzea.</p> <p>- Justifikatu gabeko <u>zenbait</u> jauzi eta/edo omisio egin ditu.</p> <p>- Ahozkotasanari dagokion hizkuntza, lagunarteko hitz gehiegi.</p>	<p>0 mailaren (desegokia) eta 2. mailaren (egokia ziklorako) arteko maila du.</p> <p>- Ez du ataza bete; ez zaio bere lagunari zuzendu. Istorioa kontatu du soilik eta, horrenbestez, ez du osorik bete agindu zaiona.</p> <p>- Ez da inkoherentea, baina ez du egitura argirik, edo ideia berak behin eta berriz errepikatzen ditu.</p> <p>- <u>Batzuetan</u> justifikatu gabeko jauzi eta/edo omisioak egin ditu eta/edo aurretik landu duen gai berera itzultzen da.</p> <p>- Erregistroa lagunartekotik edo ahozkotik hurbilegi dago.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia du, honako eskakizun hauek betetzen dituelako:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <u>Aqindutako atazari lotu</u> zaio, gutunaren hartzaileari zuzendu zaio eta haren absentzia aipatu du (gutunaren arrazoia). ▪ <u>Barne-egitura argia</u> ▪ <u>Progresio tematikoa</u>: ez da perpaus batzuetatik besteetara jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko ahazterik ere; istorioa erraz segitzen da ▪ <u>Erregistroa (hizkuntza mota)</u>: argi eta garbi bazterrean utzi du lagunarteko eta ahozko hizkuntza. (Familia mailako erregistroren bat erabiltzen badu ere -kontuan izan behar da oso hurbilekoa duen lagun bati gutun bat idazten ari dela seriotasunik gabeko gai baten gainean-). 	<p>Lehen Hezkuntzako 4.eko curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du.</p> <p>- 2. mailako eskakizun guztiak bikainki bete ditu.</p> <p>- Gainera, idazkian <u>sormena</u> erabili du, proposatutako puntu guztiez hitz egin ez badu ere beste berri batzuk gehitu ditu.</p> <p>- Testu <u>argia</u> da: testua arina egiten duten baliabide linguistikoak erabili ditu; ez da osorik aurreikusteko modukoa; ez da jauzi edo omisiorik antzematen eta testuari ez dio bat-batean eman bukaera. Edukiak oso ongi antolatuta ditu.</p>

¹ Idatzitakoa kalitatezkoa izan dadin, ezinbestekoa da ideiak planifikatu edo antolatuzko prozeduraren bat erabiltzea. Garrantzizkoagotzat jo dugu haren erabilera bultzatzea eta prozesu honetan ikasleei laguntzea alde aurretik zehaztutako formatu batekin, haren edukia ebaluatu beharrean. "Zirriborroa" deitu dugu ikasgeletan hala deitzen delako.

<p style="text-align: center;">Kohesioa</p>	<p>Ez dago erreferentea mantentzeko eta ideiak lotzeko inongo mekanismorik. Arazo hauetako asko gertatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dago argi zeri edo nori buruz ari den solasean. - Errepikapen asko. - Esaldi osatugabeak. - Ez dago paragraforik. - Ez du lokailurik erabiltzen. - Puntuak oker erabiltzen ditu. 	<p>Erreferentea mantentzeko eta lotura egiteko mekanismo gutxi dago:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Beharrik gabeko errepikapen batzuk egiten ditu. - Ez du lokailurik erabiltzen argi eta garbi erabili behar direnean edo oker erabiltzen ditu (ez du "y" erabiltzen edo gehiegi erabiltzen du). - Ez du mendeko perpaus bakar bat ere erabiltzen. Badago mendeko perpausen bat, baina lotura-mekanismoak ez dira asko. - Perpausak bereizteko puntuak erabiltzen ditu, baina ez du koma bakar bat ere erabiltzen. Harridura- eta galderamarkak erabiltzen ditu, baina ez ditu perpaus hasierakoak idazten. 	<p>Puntu hauetako bost bederen betetzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <u>Erreferentea mantentzen du</u>: badakigu zeri buruz ari den. ▪ <u>Ez dago beharrik gabeko errepikapenik</u>. ▪ <u>Paragrafo kopurua</u>: gutxienez ere, hiru paragrafo ditu ▪ <u>Lokailu batzuk zuzen erabiltzen ditu</u>. ▪ <u>Puntuazioa</u>: perpausak puntuekin bereizten ditu, eta komak erabiltzen ditu. ▪ <u>Aditz-formen denbora-korrelazioari eusten dio</u>. ▪ <u>Eraikuntza sintaktiko zuzenak</u>: <u>ideia osoak adierazten dituzten perpausak</u>, esaldiak bukatzen ditu, esaldiak ez dira oso luzeak. 	<p>Lehen Hezkuntzako 4.eko curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurreko ataleko baldintzetako gehienak betetzen ditu. ▪ <u>Mendeko perpausak</u> maiz zuzen erabiltzen ditu. ▪ <u>Lokailu asko erabiltzen ditu</u>. ▪ <u>Puntuazio-zeinu oro erabiltzen du</u>.
<p style="text-align: center;">Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna</p>	<p>Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 4. ikasmaitarako.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testua ez da argiki egituratu bereizten diren esaldietan. - Esaldi luzeegiak. - Arrunzeria gehiegi. - Akats gramatikak asko egiten ditu (preposizioak, izenordainak oker erabiltzen ditu; hitzak lotzen ditu...). - Zernahitarako balio duten hitzak (<i>cosa, cacharro, gente, hacer, pasar...</i>) erabiltzen ditu. 	<p>0 mailaren (desegokia) eta 2. mailaren (egokia ziklorako) arteko maila du.</p> <p>2. mailako eskakizunetako hiru bete ditu.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia du, honako eskakizun hauetako gehienak betetzen dituelako:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <u>Adjektiboak eta adberbioak</u>: pertsoneri eta ekintzei buruzko informazio interesgarria ematen duten adjektiboak eta adberbioak erabili ditu ▪ <u>Aditz-denborak zuzen erabili ditu</u>. ▪ <u>Ez du akats gramatikalik egin</u>: preposizioen, izenordainen, arrunkerien... erabilera ▪ <u>Komuntadura</u>: aditz komuntadura (subjektua-predikatua, bereziki) errespetatu du. • <u>Hiztegi aberatsa</u>: aldakuntza, maila; ez dago edozertarako balio duten hitzik... 	<p>Maila bikaina du, Lehen Hezkuntzako 4.erako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera.</p> <p>2. mailako eskakizun guztiak bikainki bete ditu.</p> <p>Horretaz gain, idazkian <u>ez da akats gramatikalik</u>, <u>hiztegia aberatsa da</u> eta sintaxia menderatzen dela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu.</p>

2.2. Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin bat arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna erreferentziako testuaren konplexutasunak ematen du, aktibatu beharreko ataza edo prozesu motak, galdera motak (itxia edo irekia, item bat edo gehiago dituen, gauzak identifikatu, lotu, ordenatu... beharrekoak). Aldi berean, elementu hauek guztiek gaitasun mailak zehazten dituzte (haitan sartzen ditugu ikasleak). Irakurketa maila bakoitzaren azalpena **2.3.** atalean dago.

Oker erantzundako galderek edo erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderek adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak edo zein diren testurik zailenak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek eskura dute galdera bakoitzaren azterketa xehatua, bai zuzenketa koadernoetan, bai diagnostikoari laguntzeko eranskinetan. Informazio honek emaitzak testuinguruan jartzen ditu eta aukera ematen du ebaluazio diagnostikoak bultzatu behar dituen hausnarketa eta hobekuntza-proposamenak bideratzeko.

Azterketa eta hausnarketa prozesuetan ohartarazpenei errepara diezaiekegu. Hona hemen adibide batzuk. Asmatutakoen ehunekoek erakusten dute balorazio positiboa, lau galderak soilik ez baitute lortu erantzun zuzenen % 50. Galdera horiek guztiak testu etenekoak dira eta "hausnarketa" prozesuak neurtzen dituzte, hau da, jakin behar da testutik kanpoko ezagutzak aktibatzen, agerikoa ez den informazioa interpretatzen edo ulermen orokorra egiaztatzen. Era berean, bi galderak ez dute erantzun zuzenen % 60 erdietsi. Honako hauetan ere interpretatu eta hausnartzeko prozesuak dira, eta testu jarraitu eta narratiboan izan da. Lehen testua, zalantzarik gabe, errazagoa gertatu da. Espero izatekoa zen, testua ipuin bat zelako, egitura klasikokoa, ikasleendako arrunta dena. Zailtasun gehiago izan dituzte testu etenean (testuaren generoa ez da maiz erabiltzen dutena eta haren edukiak interes gutxiago pizten du haiengan hartz zuriaren testuaren gaineko istorioarekin alderatuta). Ebaluatutako irakurketa prozesuei dagokienez, zalantzarik gabe ikasleek frogatzen dute askoz ere irakurketa estrategia gutxiago garatu dituztela eskatzen zaienean, batetik, ondorioztatu edo deduzitu behar duten informazioa interpretatzea eta, bestetik, testuko zati desberdinak elkarren artean lotzea.

Idazmenak aurreko urteetako antzeko emaitzak eman ditu. Nolanahi ere, gogoan izan behar dugu aurtengo ikasturtean nahitaezkoa zela zirriborroa edo eskema egiteko gune bat erabiltzea. Hartara, interesgarria izanen litzateke ikastetxe bakoitzak baloratzea bere ikasleek zertarako erabili duten eta atazaren zati hori nola bete duten. Ataza motari dagokionez, beren festari buruz mintzatu behar zuten eta, zailagoa zena, bere lagunaren gaixotasunaz eta ospakizunean ez egoteaz. Horixe zen gutunaren zergatia. Testuko bestelako propietateez gainera, irakasleek balora dezakete testuak bat egiten duen komunikazio-egoera honekin.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak

positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen diskriminazio indizea erakusten du:

Hizkuntza gaitasuna, gaztelaniaz	
Galdera zenbakia	Diskriminazio indizea
1	0,224
2	0,122
3	0,196
4	0,331
5	0,245
6	0,388
7	0,294
8	0,347
9	0,233
10	0,285
11	0,336
12	0,383
13	0,412
14	0,243
15	0,251
16	0,315
17	0,303
18	0,281
19	0,476
20	0,315
21	0,260
22	0,427

23	0,455
24	0,463
25	0,295
26	0,340
27	0,142
28	0,148
29	0,197
30	0,512

2.3. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Gure ustez, 1. eta 2. mailetan dauden ikasleek ez dute gaitasuna eskuratu, eta 3. edo 3+. mailakoek, berriz, espero den gaitasun-maila eskuratu dute. Oro har, maila bakoitzari lotutako gaitasunak honako hauek dira:

1. maila	2. maila	3. maila	3+. maila
<p>Maila honetako ikasleak espero baino hizkuntza-gaitasun askoz txikiagoa erakusten du.</p>	<p>Maila honetako ikasleak espero baino hizkuntza-gaitasun txikiagoa erakusten du.</p>	<p>Maila honetako ikasleak gaitasuna eskuratu du. Oso ongi moldatzen da informazioa bilatzen, bai literala, bai hitzez hitzekoa ez dena edo sakabanatua dagoena. Testu etenen</p>	<p>Maila honetako ikasleak oso ongi eskuratu du gaitasuna. Informazioa aurkitzeko gai da, modu esplizituan adierazita ez egon arren edo sakabanaturik egon arren, testu mota zeinahi dela ere.</p>
<p>Badu gaitasuna informazio guztiz literala eta lokalizatua ulertzeko. Arazoak daude, batez ere testu etenekin.</p>	<p>Informazio literala eta lokalizatua aurkitzen ahal du, baita testu etenetan ere.</p>	<p>informazioaren banaketa ulertzen du.</p>	<p>Ahalmen handia erakusten du testua osotasunean ulertzeko, interpretatzeko, eta</p>
<p>Interpretatzeko erraz-errazak diren zereginen erantzuten ahal die betiere testuaren ulermen orokorra eskatzen ez bada edo inferentzia konplexuak egin behar ez badira.</p>	<p>Interpretatzeko erraz-errazak diren zereginen erantzuten ahal die baina ez da gai inferentzia konplexuak egiteko.</p>	<p>Testua bere osotasunean ulertzen du. Interpretazio-maila onargarria erakusten du, bai eta inferentziak sortzeko gaitasuna ere.</p>	<p>ahalmen handia du, orobat, inferentziak egiteko.</p>
<p>Ez da gai testuaren edukiaz edo formaz hausnartzeko, haren kanpoko ezagutzak ez dira nahikoak eta ez ditu irakurtzen duenarekin erlazionatzen.</p>	<p>Testuaren esanahia uler dezake, baina zailtasunak ditu testua bere osotasunean ulertzeko.</p>	<p>Gai da testua baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko, eta testuko datuak baliatzen ditu edukia aplikatzeko beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko.</p>	<p>Gai da testua baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko, eta testuko datuak baliatzen ditu edukia aplikatzeko beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko.</p>
<p>Haren adierazpen idatzian koherentzia-eta kohesio-arazoak daude, eta gramatika-akatsak egiten ditu (komuntadura-arazoak, preposizioen erabilera...).</p>	<p>Testuaren edukari edo formari buruz hausnartzeko zailtasunak ditu; batzuetan, ez du erlazionatzen irakurtzen duena eta ezagutzen duena, eta hori traba da testua ulertzeko.</p>	<p>Ekoizpen idatzian 5 ortografia akats baino gutxiago daude.</p>	<p>Haren ekoizpen idatzian oso ortografia akats gutxi dago eta azentu-markak zuzen erabiltzen ditu.</p>
<p>Ortografia-akats larriak egon ohi dira.</p>	<p>Ekoizpen idatzian, 5 ortografia akats baino gehiago daude hamar lerroko.</p>	<p>Perpauak batzuk besteekin ongi josiak daude.</p>	<p>Testuak argiak dira, ongi antolaturik daude eta zentzu guztietan irakurgarriak dira.</p>
	<p>Testuaren barne-kohesioak akatsak izaten dira, eta perpauak oso egitura oinarritzakoa dute.</p>	<p>Maila honetan jada ez dago komuntadura akatsik. Argi bereizten dira ahosko kodea eta kode idatzia.</p>	<p>Maila hau aurrekotik bereizten da barne-kohesioak baliabideen erabilera, erabilitako perpauen konplexutasun eta aberastasun sintaktikoan, alegia.</p>

Mailen zenbakizko zehaztapena

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

	Hizkuntza gaitasuna, gaztelaniaz Puntuazio-tarteak
1. maila	[0, 21)
2. maila	[21, 27)
3. maila	[27, 39)
3+. maila	[39, 45]

2.4. Emaitza orokorrak

Estatistikoen taula (hizkuntza gaitasuna, gaztelaniaz)

Gaitasun proben kopurua	6964
Neska kopurua	3423
Mutil kopurua	3541
Puntuazio txikiena	1
Puntuazio handiena	45
Batez besteko puntuazioa	30,5
Desbideratze tipikoa	7,1
Nesken batezbestekoa	31,4
Mutilen batezbestekoa	29,6
1. maila (%)	9,6
2. maila (%)	17,5
3. maila (%)	60,4
3+. maila (%)	12,5


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 1 izan da eta handiena 45 puntu.
- Desbideratze tipikoa 7,1 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 23,28), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako premiak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

Hizkuntza gaitasuna, gaztelaniaz	
Maila bakoitzean dauden ikasleen ehunekoa	
1. maila	% 9,6
2. maila	% 17,5
3. maila	% 60,4
3+. maila	% 12,5




Alderdi azpimarragarriak:

- Lau ikasletik ia hiruk (% 72,9) 3. maila edo 3+. maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatzeko mailari dagozkion prozesu linguistikoak gauzatzeko.
- Hamar ikasletik batek (% 9,6) neurri bereziak behar ditu, maila apalenean dagoelako.
- Sei ikasletik bat (% 17,5) tarteko egoeran dago, ikasmalari dagozkion ataza batzuk soilik egiten ditu.

Banaketa, generoaren arabera


Neskek mutilek baino 1,8 puntu gehiago erdietsi dute batez beste. Alde hori moderatutzat har daiteke, desbideratze tipikoaren laurdena baita (DT = 7,1).

Hizkuntza gaitasuna, gaztelaniaz	
Batez besteko puntuazioa	
Neskak	31,4
Mutilak	29,6



2.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazioen banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da asimetrikoa ezker aldetik, eta zorrotzagoa.

- Fisherren asimetria koefizientea -0,553 da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoia.
- Fisherren kurtosi koefizientea 0,065 da. Hori da zorrotzagoa (leptokurtikoa) izatearen arrazoia.

3. Hizkuntza gaitasuna, euskaraz

3.1. Probaren deskribapena: galdera kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoak

Probak bi zati izan ditu: irakurriaren ulermena eta ekoizpen idatzia.

Irakurriaren ulermenerako probak askotariko bi testu ditu. Horrek ziurtatzen du irakurmena formatu, tipologia edo genero batean baino gehiagotan neurtuko dela. Probak, zehazki, bi testu hauek zituen: “*Mattin Mottela*” ipuina, testu jarraitu eta narratiboa, eta “*Urederra*”, webgune batetik ateratako testu etena, azalpenak ematekoa. Lehen testutik 15 galdera atera ziren eta bigarrenetik 13. Irakurriaren ulermenak, guztira, 28 galdera izan zituen. Galdera guztiek 1 puntu balio zuten. Galderen zailtasuna ez da beti bera izan; batzuk oso errazak gertatu dira (ikasleen % 87,31k erantzun dute zuzen) eta beste batzuk oso zailak (ikasleen % 12,74k baizik ez dituzte zuzen erantzun). 28 galderei zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesuekin daude loturik.

Ekoizpen idatzian testu bat idatzi behar zen, aldez aurretik emandako ildo batzuei jarraikiz. Testu horren edukia eta zuzenketa-irizpideak atal honetan berean, beheago, zehazten dira.

Trebetasunak honela banatu dira:

Trebetasuna	Puntuazioa	Zenbat balio duen, puntuazio osoarekin alderaturik
<i>Irakurriaren ulermena</i>	28	% 68,29
<i>Ekoizpen idatzia</i>	13	% 31,71
GUZTIRA	41	% 100

Hurrengo taulan erakusten dira probako galderen zenbait ezaugarri: probaren zatia, galderaren tipologia (irekia edo itxia), esleitutako gehienezko puntuazioa eta ebaluatutako irakurketa prozesua, irakurriaren ulermenari dagokionez. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernoan.

Hizkuntza gaitasuna, euskaraz
(Irakurriaren ulermena eta ekoizpen idatzia)

Galdera zenbakia	Mota	Puntuazio handiena	Zuzen erantzundakoen ehunekoa	Ebaluatutako prozesua	Zatia
1	Itxia	1	% 45,55	Informazioa aurkitzea	Irakurriaren ulermena (IU) <i>Mattin Motela</i>
2	Itxia	1	% 60,93	Interpretatzea eta integratzea	<i>Mattin Motela</i>
3	Itxia	1	% 65,56	Informazioa aurkitzea	<i>Mattin Motela</i>
4	Itxia	1	% 87,31	Hausnartzea	<i>Mattin Motela</i>
5	Itxia	1	% 57,19	Informazioa aurkitzea	<i>Mattin Motela</i>
6	Itxia	1	% 81,41	Interpretatzea eta integratzea	<i>Mattin Motela</i>
7	Itxia	1	% 35,02	Informazioa aurkitzea	<i>Mattin Motela</i>
8	Irekia	1	% 70,46	Informazioa aurkitzea	<i>Mattin Motela</i>
9	Itxia	1	% 63,98	Informazioa aurkitzea	<i>Mattin Motela</i>
10	Itxia	1	% 67,77	Informazioa aurkitzea	<i>Mattin Motela</i>
11	Itxia	1	% 63,82	Informazioa aurkitzea	<i>Mattin Motela</i>
12	Itxia	1	% 49,45	Interpretatzea eta integratzea	<i>Mattin Motela</i>
13	Itxia	1	% 12,74	Interpretatzea eta integratzea	<i>Mattin Motela</i>
14	Itxia	1	% 39,55	Interpretatzea eta integratzea	<i>Mattin Motela</i>
15	Itxia	1	% 72,30	Interpretatzea eta integratzea	<i>Mattin Motela</i>
16	Itxia	1	% 81,57	Interpretatzea eta integratzea	Irakurriaren ulermena (IU) <i>Urederra</i>
17	Itxia	1	% 71,83	Informazioa aurkitzea	<i>Urederra</i>
18	Itxia	1	% 27,96	Interpretatzea eta integratzea	<i>Urederra</i>
19	Itxia	1	% 65,72	Informazioa aurkitzea	<i>Urederra</i>
20	Itxia	1	% 86,94	Informazioa aurkitzea	<i>Urederra</i>

21	Irekia	1	% 68,77	Informazioa aurkitzea	<i>Urederra</i>
22	Itxia	1	% 40,65	Interpretatzea eta integratzea	<i>Urederra</i>
23	Irekia	1	% 43,60	Interpretatzea eta integratzea	<i>Urederra</i>
24	Irekia	1	% 64,40	Informazioa aurkitzea	<i>Urederra</i>
25	Irekia	1	% 75,30	Hausnartzea	<i>Urederra</i>
26	Itxia	1	% 62,24	Hausnartzea	<i>Urederra</i>
27	Itxia	1	% 55,29	Interpretatzea eta integratzea	<i>Urederra</i>
28	Itxia	1	% 15,48	Interpretatzea eta integratzea	<i>Urederra</i>
29	Irekia	13	% 60,26	Plangintza, aurkezpena eta ortografia, testuaren koherentzia, egokitasuna, kohesioa, zuzentasun gramatikala eta hiztegi aberatsa.	Idazmena
GUZTIRA		41			

Idazmeneko proban txango batean gertatutakoa kontatu behar izan da. Zehaztu behar zuten tokia, unea, lagunak, egindako jarduerak eta balorazio pertsonala. Idazlanean bost alderdi hauek baloratu dira: Plangintza edo zirriborroa; aurkezpena eta ortografia; istorioaren koherentzia eta egokitasuna; kohesioa; eta zuzentasun gramatikala eta hiztegi aberatsa. Denek munta bera izan dute puntuazio osoan: gehienez ere 3 puntu zati bakoitzak. Zirriborroak, aldiz, puntu bat edo deus ere ez. Ondorengo tauletan, aplikatutako zuzenketa irizpideak zehazten dira:

	0 atala (0 puntu)	1. atala (Puntu 1)	2. atala (2 puntu)	3. atala (3 puntu)
Plangintza	Ez du erabili.	Erabili du ² .		
Aurkezpena eta ortografia	Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Idazkiaren aurkezpena txarra da eta akats ortografiko asko ditu.	0 atalaren (puntuazio eskasa) eta 2. atalaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. 2. ataleko eskakizunetako hiru bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4. mailarako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <u>Txukun idatzita dago</u> (ez dago zirrimarrarik...) ▪ <u>Letra</u> argia eta irakurterraza. ▪ <u>Marjinak</u> ongi zehazturik daude. ▪ <u>Ortografia</u>: testu laburrak direnean (10-15 lerro), bost akats, gehienez (tz/ts/tx/z/s/x gaizki idatziz gero, horietako 5 akats bakartzat hartuko dira); zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean. <u>Letra larriak zuzen erabili ditu.</u> <u>Harridura eta galdera ikurrak zuzen erabili ditu.</u>	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2. ataleko sei eskakizunak bikain bete ditu; ortografia akats gutxi egin du.
Kontakizunaren koherentzia eta egokitasuna	Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. - Koherentziarik eta egiturarik gabeko kontakizuna egin du. - Jauziak eta justifikatu gabeko hutsuneak daude. - Ez du zeregina bete. - Ahozkotasanaren berezko hizkuntza erabili du.	0 atalaren (puntuazio eskasa) eta 2. atalaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. -Ataza ulertu du baina laburregia da. - Ez da inkoherentea baina egitura ez da behar bezain argia. - Batzuetan justifikatu gabeko hutsuneak daude edo gai beraren gainean aritzen da. - Batzuetan erregistroa oso lagunartekoa da.	Lehen Hezkuntzako 4. erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <u>Egitura</u> argia: gertaerak kronologikoki kontatu ditu, ongi deskribatu ditu tokiak eta sentipenak (ipuinaren kasuan: aurkezpena, korapiloa eta bukaera bereizi ditu). ▪ <u>Bilakaera tematikoa</u>: ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsunerik ere; kontakizuna erraz segitzen da. ▪ <u>Aqindutako zeregina bete du.</u> ▪ <u>Erregistro egokia erabili du.</u> ▪ <u>Perpausak</u>: perpausok ideia osoak adierazten dituzte. 	LHko 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2. ataleko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazlanak ezaugarri hauek ditu: argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideak erabiltzea (<u>orduan</u> ; <u>geroago</u> ; <u>hala ere</u> , <u>etab.</u> ; ez dago alferrikako errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa), ez dago jauzirik edo hutsunerik.

² Idatzizko adierazpenaren kalitateari begira, funtsezkoa da ideiak planifikatzeko edo antolatzekeko prozeduraren bat erabiltzea. Garrantzitsuagoak iruditzen zaizkigu ikasleek prozedura hauek erabiltzea sustatzea eta ikasleei prozesu horretan alde aurretik ezarritako formatu bat emanez laguntzea, edukia ebaluatzea baino. "Zirriborroa" deitu diogu, ikasgeletan erabiltzen den termino bat dela uste dugulako.

<p style="text-align: center;">Kohesioa</p>	<p>Ez dago erreferenteari eusteko eta ideiak konektatzeko mekanismorik.</p> <p>Hona hemen arazo horietako asko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dago argi zertaz ari den. - Errepikapen gehiegi. - Esaldi osatugabeak. - Ez dago paragraforik. - Ez du konektorerik erabili. - Gaizki erabili ditu puntuak. 	<p>Erreferenteari eusteko eta lotzeko mekanismo gutxi daude.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Behar ez diren errepikapenak daude. - Beharrezkoak izanik ere, ez du lokailurik erabili edo gaizki erabili ditu. - Ez dago mendeko perpaus bakar bat ere erabili. - Puntuak erabili baditu ere, ez du koma bakar bat ere erabili. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <u>Sintaxia</u>: idazlanean erabilitako sintaxi egiturak zuzenak dira. Ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez. ▪ <u>Paragrafo kopurua</u>: hiru paragrafotan, gutxienez, banatu du testua paragrafoetan. ▪ <u>Joskera</u>: paragrafoak zein perpausak ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa). ▪ <u>Erreferenteari eutsi dio</u>. ▪ <u>Ez dago alferrikako errepikaparik</u> ▪ <u>Puntuazioa</u> 	<p>LHko 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.</p> <p>2. ataleko eskakizun guztiak bikain bete ditu.</p> <p>Bestelako juntagailuak eta lokailuak erabili ditu, baita menderagailu bat(zuk) ere.</p>
<p style="text-align: center;">Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna</p>	<p>Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Perpausak ez dira zuzenak. - Gramatika akats dezente egin ditu. - Makulu-hitz asko erabili ditu : "gauza, egin, pasa, zera..." 	<p>0 atalaren (puntuazio eskasa) eta 2. atalaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du.</p> <p>2. ataleko eskakizunetako hiru bete ditu.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4. mailarako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <u>Aditzak</u>: oro har, zuzen erabili ditu (denbora eta aspektua). ▪ <u>Komunztadura</u> akats batzuk, bakarrik egin ditu (ergatiboa, pluralgilea...). ▪ <u>Deklinabidea</u>: kasu markak ongi erabili ditu, oro har. ▪ <u>Lexiko</u> egokia erabili du (adjektiboak, adberbioak, hitz eratorriak, hitz elkartuak...). <p>Pertsonen eta ekintzen buruzko informazio garrantzitsua ematen dute erabilitako hitzek.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.</p> <p>2. ataleko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, ez du gramatika akatsik egin, lexiko aberatsa baliatu du eta sintaxia menderatzen duela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testua oso ongi idatzita dago, kontuan izanik Lehen Hezkuntzako 4. mailan gaudela.</p>

3.2. Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin bat arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna erreferentziako testuaren konplexutasunak ematen du, aktibatu beharreko ataza edo prozesu motak, galdera motak (itxia edo irekia, item bat edo gehiago dituena, gauzak identifikatu, lotu, ordenatu... beharrekoak). Aldi berean, elementu hauek guztiek gaitasun mailak zehazten dituzte (haitan sartzen ditugu ikasleak). Irakurketa maila bakoitzaren azalpena **3.3.** atalean dago.

Oker erantzundako galderak edo erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderak adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak edo zein diren testurik zailenak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek eskura dute galdera bakoitzaren azterketa xehatua, bai zuzenketa koadernoetan, bai diagnostikoari laguntzeko eranskinetan. Informazio honek emaitzak testuinguruan jartzen ditu eta aukera ematen du ebaluazio diagnostikoak bultzatu behar dituen hausnarketa eta hobekuntza-proposamenak bideratzeko.

Azterketa eta hausnarketa prozesuetan ohartarazpenei errepara diezaiekegu. Hona hemen adibide batzuk. Osotara, 9 galderak ez dute lortu zuzen erantzundakoak % 50 izatea. Testu motari erreparatzen badiogu, bost lehen motakoak dira eta gainerako laurak bigarrenekoak. Hemen ondorioak ez du bat egiten gaztelaniazko irakurmenekoarekin, ez baitu ematen testu etena testua jarraitua baino zailagoa gertatu denik, testu jarraitua ipuin tradizional bat baitzen. Arrazoa, beharbada, ipuineko hiztegian dago, askotariko hitzak erabiltzen baitira eta, batzuetan, zaharkituak Lehen Hezkuntzako gaur egungo belaunaldietako ikasleendako. Era berean, bilakaera tematikoaren egitura ez zen hain lineala, ikasle hauek gaur egun irakurri ohi dituzten kontakizunekin alderaturik.

Galdera hauek ebaluatzeko irakurketa prozesuari dagokionez, bederatzi itemetatik zazpitan informazioa interpretatu edo txertatu behar zen eta bitan, berriz, kokatu. Idazmenak, gaztelaniazkoak bezala, aurreko ikasturteetako antzeko emaitzak eman ditu (2018ko ehuneko bera eta 2019koa baino % 5 handiagoa). Nolanahi ere, gogoan izan behar dugu aurtengo ikasturtean nahitaezkoa zela zirriborroa edo eskema egiteko gune bat erabiltzea. Hartara, interesgarria izanen litzateke ikastetxe bakoitzak baloratzea bere ikasleek zertarako erabili duten eta atazaren zati hori nola bete duten. Narrazio testu bat idatzi behar zen, zailtasun handirik gabeko esperientzia pertsonal batean oinarritua.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen diskriminazio indizea erakusten du:

Hizkuntza gaitasuna, euskaraz	
Galdera zenbakia	Diskriminazio indizea
1	0,122
2	0,230
3	0,305
4	0,352
5	0,404
6	0,458
7	0,361
8	0,378
9	0,450
10	0,406
11	0,241
12	0,107
13	0,112
14	0,326
15	0,410
16	0,166
17	0,326
18	0,120
19	0,400
20	0,261

21	0,365
22	0,276
23	0,441
24	0,410
25	0,354
26	0,291
27	0,371
28	0,297
29	0,537

3.3. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horren arabera, 1. eta 2. mailetako ikasleek ez dute lortu gaitasuna, eta 3. edo 3+. mailakoek espero den gaitasun-maila dute. Oro har, maila bakoitzari lotutako gaitasunak honako hauek dira:

1. maila	2. maila	3. maila	3+. maila
Maila honetako ikasleak espero baino hizkuntza-gaitasun askoz txikiagoa erakusten du.	Maila honetako ikasleak espero baino hizkuntza-gaitasun txikiagoa erakusten du.	Maila honetako ikasleak gaitasuna eskuratu du. Oso ongi moldatzen da informazioa bilatzen, bai literala, bai hitzez hitzekoa ez dena edo sakabanatua dagoena. Testu etenen informazioaren banaketa ulertzen du.	Maila honetako ikasleak oso ongi eskuratu du gaitasuna. Informazioa aurkitzeko gai da, modu esplizituan adierazita ez egon arren edo sakabanaturik egon arren, testu mota zeinahi dela ere.
Badu gaitasuna informazio guztiz literala eta lokalizatua ulertzeko. Arazoak daude, batez ere testu etenekin.	Informazio literala eta lokalizatua aurkitzen ahal du, baita testu etenetan ere.	Testua bere osotasunean ulertzen du. Interpretazio-maila onargarria erakusten du, bai eta inferentziak sortzeko gaitasuna ere.	Ahalmen handia erakusten du testua osotasunean ulertzeko, interpretatzeko, eta ahalmen handia du, orobat, inferentziak egiteko.
Interpretatzeko erraz-errazak diren zereginetara erantzuten ahal die betiere testuaren ulermen orokorra eskatzen ez bada edo inferentzia konplexuak egin behar ez badira.	Interpretatzeko erraz-errazak diren zereginetara erantzuten ahal die baina ez da gai inferentzia konplexuak egiteko.	Testua bere osotasunean ulertzen du. Interpretazio-maila onargarria erakusten du, bai eta inferentziak sortzeko gaitasuna ere.	Ahalmen handia erakusten du testua osotasunean ulertzeko, interpretatzeko, eta ahalmen handia du, orobat, inferentziak egiteko.
Ez da gai testuaren edukiaz edo formaz hausnartzeko, haren kanpoko ezagutzak ez dira nahikoak eta ez ditu irakurtzen duenarekin erlazionatzen.	Testuaren esanahia uler dezake, baina zailtasunak ditu testua bere osotasunean ulertzeko.	Gai da testua baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko, eta testuko datuak baliatzen ditu edukia aplikatzeko beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko.	Gai da testua baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko, eta testuko datuak baliatzen ditu edukia aplikatzeko beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko.
Haren adierazpen idatzian koherentzia-eta kohesio-arazoak daude, eta gramatika-akatsak egiten ditu (komuntadura-arazoak, preposizioen erabilera...).	Testuaren edukiarik edo formarik buruz hausnartzeko zailtasunak ditu; batzuetan, ez du erlazionatzen irakurtzen duena eta ezagutzen duena, eta hori traba da testua ulertzeko.	Gai da testua baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko, eta testuko datuak baliatzen ditu edukia aplikatzeko beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko.	Haren ekoizpen idatzian oso ortografia akats gutxi dago eta azentu-markak zuzen erabiltzen ditu.
Ortografia-akats larriak egon ohi dira.	Testuaren edukiarik edo formarik buruz hausnartzeko zailtasunak ditu; batzuetan, ez du erlazionatzen irakurtzen duena eta ezagutzen duena, eta hori traba da testua ulertzeko.	Ekoizpen idatzian 5 ortografia akats baino gutxiago daude.	Testuak argiak dira, ongi antolaturik daude eta zentzu guztietan irakurgarriak dira.
	Ekoizpen idatzian, 5 ortografia akats baino gehiago daude hamar lerroko.	Perpauzak batzuk besteekin ongi josiak daude.	Testuak argiak dira, ongi antolaturik daude eta zentzu guztietan irakurgarriak dira.
	Testuaren barne-kohesioak akatsak izaten dira, eta perpausen oso egitura oinarritzakoa dute.	Maila honetan jada ez dago komuntadura akatsik. Argi bereizten dira ahosko kodea eta kode idatzia.	Maila hau aurrekotik bereizten da barne-kohesioak akatsak izaten dira, eta perpausen oso egitura oinarritzakoa dute.

Mailen zenbakizko zehaztapena

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

Hizkuntza gaitasuna, euskaraz	
Puntuazio-tarteak	
1. maila	[0, 15)
2. maila	[15, 21)
3. maila	[21, 33)
3+. maila	[33, 41]

3.4. Emaitza orokorrak

Estatistikoen taula (hizkuntza gaitasuna, euskaraz)

Gaitasun proben kopurua	1899
Neska kopurua	934
Mutil kopurua	965
Puntuazio txikiena	2
Puntuazio handiena	41
Batez besteko puntuazioa	24,2
Desbideratze tipikoa	6,8
Nesken batezbestekoa	25,2
Mutilen batezbestekoa	23,1
1. maila (%)	8,9
2. maila (%)	20,0
3. maila (%)	60,1
3+. maila (%)	11,0


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuazioarik txikiena 2 izan da eta handiena 41 puntu.
- Desbideratze tipikoa 6,8 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 28,10), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun moderatua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako premiak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

Hizkuntza gaitasuna, euskaraz	
Maila bakoitzean dauden ikasleen ehunekoa	
1. maila	% 8,9
2. maila	% 20,0
3. maila	% 60,1
3+. maila	% 11,0




Alderdi azpimarragarriak:

- Lau ikasletik ia hiruk (% 71,10) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatzeko mailari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek baino zertxobait gehiagok (% 11) bikaintasun maila erdietsi du.
- Hamaika ikasletik batek (% 8,9) neurri bereziak behar ditu, maila apalenean dagoelako.
- Bost ikasletik bat (% 20) tarteko egoeran dago, ikasmilari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

Banaketa, generoaren arabera


Neskek mutilek baino 2,1 puntu gehiago erdietsi dute batez beste. Alde hori moderatutzat har daiteke, desbiderapen tipikoaren laurdenaren eta herenaren tartean baitago (DT = 6,8).

Hizkuntza gaitasuna, euskaraz	
Batez besteko puntuazioa	
Neskak	25,2
Mutilak	23,1



3.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazioen banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da asimetrikoa ezker aldetik, eta kamutsagoa.

- Fisherren asimetria koefizientea -0,206 da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoia.
- Fisherren kurtosi koefizientea -0,459 da. Hori da kamutsagoa (platikurtikoa) izatearen arrazoia.

4. Matematika gaitasuna

4.1. Probaren deskribapena: galdera kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoak

Probak bi estimulu edo egoera izan ditu, “Baloiak” eta “Nafarroako Bardea” izenekoak. Lehen testutik 6 galdera atera ziren eta bigarrenetik 16. Guztira, 22 galdera izan zituen. Horien artean, 17 galderak puntu 1eko balorazioa izan dute eta 5ek 2 puntukoak. Kasu horretan puntuazio partzialak onartzen ziren (puntuazioa 26 da gehienez ere, galderetako bat baztertu baitzen maketazioko akats batengatik).

Galderen zailtasuna ez da beti bera izan; batzuk oso errazak gertatu dira (zuzen ikasleen % 86,02k erantzundakoak) eta beste batzuk oso zailak (ikasleen % 19,66k baino ez dituztenak zuzen erantzun).

22 (21) galderei zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko prozesu matematikoekin daude loturik. Hurrengo taulan erakusten dira probako galderen zenbait ezaugarri: tipologia (irekia edo itxia), esleitutako gehienezko puntuazioa eta ebaluatutako prozesu matematikoa. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernoan.

Matematika gaitasuna

Galdera zenbakia	Mota	Puntuazio handiena	Zuzen erantzundakoehunekoak	Ebaluatutako prozesua (*)	Eduki multzoa
1	Itxia	1	% 73,38	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Geometria
2	Irekia	1	% 49,61	Arrazoitzea eta hausnartzea	Zenbakiak
3	Irekia	2	% 41,14	Aztertzea eta aplikatzea	Zenbakiak
4	Irekia	2	% 43,40	Aztertzea eta aplikatzea	Zenbakiak
5	Itxia E/G	2	% 49,61	Arrazoitzea eta hausnartzea	Estatistika eta probabilitatea
6	Itxia	1	% 73,61	Aztertzea eta aplikatzea	Zenbakiak
7	Itxia	1	% 50,88	Ezagutzea eta	Geometria

				erreproduzitzea	
8	Irekia	1	% 19,66	Aztertzea eta aplikatzea	Neurriak
9	Itxia	1	% 60,87	Aztertzea eta aplikatzea	Neurriak
10	Itxia	1	% 45,74	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Geometria
11	Itxia	1	% 22,36	Aztertzea eta aplikatzea	Neurriak
12	Irekia	1	% 39,18	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Zenbakiak
13	Itxia	1	% 84,18	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Geometria
14	Irekia	2	% 38,31	Aztertzea eta aplikatzea	Zenbakiak
15	Itxia	1	% 74,83	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Geometria
16	Itxia	1	% 61,12	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Zenbakiak
17	Itxia	1	% 86,02	Aztertzea eta aplikatzea	Estatistika eta probabilitatea
18	Irekia	1	% 55,92	Arrazoitzea eta hausnartzea	Zenbakiak
19	Itxia	0	Deuseztatua	Aztertzea eta aplikatzea	Neurriak
20	Irekia	1	% 45,87	Aztertzea eta aplikatzea	Zenbakiak
21	Irekia	2	% 63,64	Aztertzea eta aplikatzea	Neurriak
22	Itxia	1	% 49,45	Aztertzea eta aplikatzea	Geometria
GUZTIRA		26			

(*) Galderari argien lotutako prozesua hautatu da eta ez da beste prozesu batzuekiko lotura bazterten

4.2. Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin bat arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna erreferentziazko edukiaren arabera da, esparru bat baino gehiago nahasten ote dituen, zer prozesu mota ebaluatzen den, informazioa nola aurkezten den (zenbakietan, benetako egoeretan, modu

esplizituan gutxiago edo gehiago, grafikoetan, plano batean...), zein galdera mota den (itxia edo irekia, galdera batekoa edo gehiagokoa den, urrats bakarra edo gehiago egin behar diren...). Aldi berean, elementu hauek guztiek gaitasun mailak zehazten dituzte (haietan sartzen ditugu ikasleak). Matematika gaitasunaren maila bakoitzaren azalpena **4.3.** atalean dago.

Oker erantzundako galderak edo erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderak adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak edo zein diren testurik zailenak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek eskura dute galdera bakoitzaren azterketa xehatua, bai zuzenketa koadernoetan, bai diagnostikoari laguntzeko eranskinetan. Informazio honek emaitzak testuinguruan jartzen ditu eta ebaluazio diagnostikoak bultzatu behar duen prozesu hau - hausnartu eta hobekuntzak proposatzekoa- bideratu behar du.

Azterketa eta hausnarketarako prozesuan, honako alderdi hauen antzekoei errepara diezaiekegu, adibidez. Ikasleen erdiek baino gehiagok ez dituzte zuzen erantzun hamaika galdera. Galdera horien izaerari erreparatuz, ondorioak argiak dira: batetik, galdera horietatik zazpi irekiak dira eta bat "egia eta gezurra" motatakoak. Gainerakoak, berriz, itxiak dira. Bestalde, zazpi galderatan "aztertu eta aplikatzekoak" ziren eta sei, berriz, "zenbakien" multzokoak ziren. Galdera irekiak zailagoak dira, ikasleek egoera eta ematen zaien informazioa eta eskatzen zaien informazioa zein den ulertu behar baitute eta, orobat, egoera hori matematikoki planteatu eta eragiketak zuzen egin. Halako ohartarazpenetatik abiatuta zehatz dezakegu zer prozesuk, edukik eta ataza motak eskatzen duten irakasleen arreta handiagoa.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen diskriminazio indizea erakusten du:

Matematika gaitasuna	
Galdera zenbakia	Diskriminazio indizea
1	0,214
2	0,396
3	0,522
4	0,492
5	0,476
6	0,339
7	0,259
8	0,380
9	0,293
10	0,247
11	0,051
12	0,435
13	0,331
14	0,546
15	0,323
16	0,392
17	0,330
18	0,502
19	Deuseztatua
20	0,482
21	0,506
22	0,201

4.3. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horren arabera, 1. eta 2. mailetako ikasleek ez dute lortu gaitasuna, eta 3. edo 3+. mailakoek espero den gaitasun-maila dute. Oro har, maila bakoitzari lotutako gaitasunak honako hauek dira:

1. maila	2. maila	3. maila	3+. maila
<p>Maila honetako ikasleak matematika-gaitasun txikia du. Oso galdera gutxiri erantzuten dio zuzen.</p>	<p>Maila honetako ikasleak espero baino gaitasun txikiagoa erakusten du. Galdera errazenei erantzuten diete.</p>	<p>Maila honetako ikasleak badu ikasturte honetan espero zen gaitasuna. Ongi daki oinarrizko kalkuluak egiten, eta, gainera, zenbait ezagutza aplikatzeko gai da egiazko testuinguruei dagozkien egoerak ebazteko.</p>	<p>Gaitasuna oso ongi eskuratu duela erakusten du. Ongi daki oinarrizko kalkuluak egiten, eta, gainera, zenbait ezagutza aplikatzeko gai da egiazko testuinguruei dagozkien egoerak ebazteko.</p>
<p>Gai da aurreko zikloari dagozkion oinarrizko kalkuluak egiteko.</p>	<p>Gai da 1. zikloari dagozkion oinarrizko kalkuluak egiteko.</p>	<p>Zenbakizko informazio gutxi izan arren, ulertzen ditu arazoiketa logiko-matematikoa erabiltzea eskatzen duten egoerak. Gisa berean, zuzen ebazten ditu bi urrats egitea eskatzen duten problemak.</p>	<p>Egoera ulertzen du, behar duen informazioa ateratzen du, gai da matematika-planteamenduari ekiteko eta badaki arazoiketa matematikoa alde zuzen erabiltzea eskatzen duten egoerak ebazteko.</p>
<p>Ez du egoera ulertzen eta ez ditu egoki ateratzen behar dituen datuak. Ez da gai bi urrats eskatzen dituzten problemak ebazteko, ez eta arazoiketa matematikoa eskatzen dutenak ebazteko ere.</p>	<p>Ez du egoera ulertzen eta ez ditu egoki ateratzen behar dituen datuak. Ez da gai bi urrats eskatzen dituzten problemak ebazteko, ez eta arazoiketa matematikoa eskatzen dutenak ebazteko ere.</p>	<p>Proporzionaltasuna adierazten duten egoerak ulertzen ditu eta zatikizko zenbakiak erabiltzen ditu; badaki denbora-kalkulu errealek egiten arrunt ohikoak diren egoeretatik abiatuz; gai da irudi geometrikoak egiazko bizitzan identifikatzeko; txanponen balioa ezagutzen du eta ongi moldatzen da txanponekin.</p>	<p>Egoera ulertzen du, behar duen informazioa ateratzen du, gai da matematika-planteamenduari ekiteko eta badaki arazoiketa matematikoa alde zuzen erabiltzea eskatzen duten egoerak ebazteko.</p>
<p>Ez ditu ulertzen proportzionaltasuna adierazten duten egoerak. Ez ditu zatikizko zenbakiak erabiltzen.</p>	<p>Ez ditu ulertzen proportzionaltasuna adierazten duten egoerak. Ez ditu zatikizko zenbakiak erabiltzen.</p>	<p>Zuzen interpretatu eta adierazten du grafikoetan adierazitako informazioa.</p>	<p>Egoera ulertzen du, behar duen informazioa ateratzen du, gai da matematika-planteamenduari ekiteko eta badaki arazoiketa matematikoa alde zuzen erabiltzea eskatzen duten egoerak ebazteko.</p>
<p>Arazoak ditu denbora kalkulatzeko eta txanponen balioa kalkulatzeko. Ez ditu irudi geometrikoak identifikatzen egiazko bizitzan.</p>	<p>Zailtasunak ditu denbora kalkulatzeko eta txanponen balioa kalkulatzeko. Ez ditu beti identifikatzen irudi geometrikoak egiazko bizitzan.</p>	<p>Zuzen interpretatu eta adierazten du grafikoetan adierazitako informazioa.</p>	<p>Egoera ulertzen du, behar duen informazioa ateratzen du, gai da matematika-planteamenduari ekiteko eta badaki arazoiketa matematikoa alde zuzen erabiltzea eskatzen duten egoerak ebazteko.</p>
<p>Ez da gai grafiko edo taula bat ulertzeko. Simetria identifikatzeko arazoak izan ditzake.</p>	<p>Grafiko bat egiten ahal du euskarri eta adibideekin, eta oso taula errazak interpretatu ere bai. Planoko simetria ulertzen du.</p>	<p>Espazioan moldatzen da eta badaki simetria ezagutzen.</p>	<p>Zuzen interpretatu eta adierazten du grafikoetan adierazitako informazioa.</p>

Mailen zenbakizko zehaztapena

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

	Matematika gaitasuna Puntuazio-tarteak
1. maila	[0, 6)
2. maila	[6, 10)
3. maila	[10, 21)
3+. maila	[21, 26]

4.4. Emaitza orokorrak

Estatistikoen taula (Matematika gaitasuna)

Gaitasun proben kopurua	6953
Neska kopurua	3421
Mutil kopurua	3532
Puntuazio txikiena	1
Puntuazio handiena	26
Batez besteko puntuazioa	13,6
Desbideratze tipikoa	5,7
Nesken batezbestekoa	13,2
Mutilen batezbestekoa	14,1
1. maila (%)	9,0
2. maila (%)	17,3
3. maila (%)	60,1
3+. maila (%)	13,6


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 1 izan da eta handiena 26 puntu.
- Desbideratze tipikoa 5,7 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 41,91), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun altua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako premiak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

Matematika gaitasuna	
Maila bakoitzean dauden ikasleen ehunekoa	
1. maila	% 9,0
2. maila	% 17,3
3. maila	% 60,1
3+. maila	% 13,6




Alderdi azpimarragarriak:

- Lau ikasletik ia hiruk (% 73,7) 3. maila edo 3+. maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatze mailari dagozkion prozesu matematikoak gauzatzeko. % 13,6k bikaitasun maila erdietsi dute.
- Hamaika ikasletik batek (% 9) neurri bereziak behar ditu, maila apalenean dagoelako.
- % 18,94 tarteko egoeran daude (ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute).

Banaketa, generoaren arabera


Mutilek neskek baino 0,9 puntu gehiago erdietsi dituzte, batez beste. Alde hori arintzat har daiteke, desbideratze tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (DT = 5,7).

Matematika gaitasuna	
Batez besteko puntuazioa	
Neskak	13,2
Mutilak	14,1



4.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazioen banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da zertxobait asimetrikoa ezker aldetik, eta kamutsagoa.

- Fisherren asimetria koefizientea $-0,054$ da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoia.
- Fisherren kurtosi koefizientea $-0,895$ da. Hori da kamutsagoa (platikurtikoa) izatearen arrazoia.

5. Hizkuntza gaitasuna, ingelesez

5.1. Probaren deskribapena: galdera kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoak

Probak hiru trebetasunetako galderak izan ditu: ahozkoaren ulermena (*Listening*), 8 galderarekin; irakurriaren ulermena (*Reading*), 20 galderarekin, eta idazmena (*Writing*), jarraibide batzuei segituz testu txiki bat idazteko lanarekin. Idazmenak, berriz, bi testu desberdin izan ditu: bata, etena, “*Healthy daily habits*” (*Reading 1*) eta, bestea, jarraitua, “*Superhero life*” izenekoa (*Reading 2*).

Hizkuntza trebetasun horiek pisu desberdina dute puntuazio osoaren barnean; hona puntuazio horiek:

Trebetasuna	Puntuazioa	Zenbat balio duen, puntuazio osoarekin alderaturik
<i>Listening</i>	10	% 23,81
<i>Reading</i>	20	% 47,62
<i>Writing</i>	12	% 28,57
GUZTIRA	42	% 100

28 galderei zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko prozesuekin daude loturik. Hurrengo taulan erakusten dira probako galderen zenbait ezaugarri: tipologia (irekia edo itxia), esleitutako gehieneko puntuazioa eta ebaluatutako prozesua. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernoan.

Hizkuntza gaitasuna, ingelesez

Galdera zenbakia	Mota	Puntuazio handiena	Zuzen erantzundakoen ehunekoak	Ebaluatutako prozesua (*)	Eduki multzoa
1	Itxia	1	% 81,34	Informazioa aurkitzea	<i>Listening</i>
2	Itxia	1	% 88,20	Informazioa aurkitzea	<i>Listening</i>
3	Irekia	2	% 74,30	Informazioa aurkitzea	<i>Listening</i>
4	Itxia	1	% 84,53	Informazioa aurkitzea	<i>Listening</i>
5	Itxia	1	% 51,12	Informazioa aurkitzea	<i>Listening</i>

6	Itxia	1	% 69,01	Informazioa aurkitzea	<i>Listening</i>
7	Itxia	2	% 65,62	Informazioa interpretatzea	<i>Listening</i>
8	Itxia	1	% 89,96	Informazioa aurkitzea	<i>Listening</i>
9	Itxia	1	% 89,73	Informazioa aurkitzea	<i>Reading 1</i>
10	Itxia	1	% 91,92	Informazioa aurkitzea	<i>Reading 1</i>
11	Itxia	1	% 29,36	Informazioa interpretatzea	<i>Reading 1</i>
12	Itxia	1	% 51,28	Informazioa aurkitzea	<i>Reading 1</i>
13	Itxia	1	% 53,36	Formaren gainean hausnartzea	<i>Reading 1</i>
14	Itxia	1	% 82,97	Informazioa aurkitzea	<i>Reading 1</i>
15	Itxia	1	% 85,98	Formaren gainean hausnartzea	<i>Reading 1</i>
16	Itxia	1	% 81,43	Informazioa aurkitzea	<i>Reading 1</i>
17	Irekia	1	% 18,80	Informazioa aurkitzea	<i>Reading 1</i>
18	Itxia	1	% 92,97	Informazioa aurkitzea	<i>Reading 2</i>
19	Itxia	1	% 76,55	Informazioa aurkitzea	<i>Reading 2</i>
20	Itxia	1	% 90,28	Informazioa interpretatzea	<i>Reading 2</i>
21	Itxia	1	% 80,75	Informazioa aurkitzea	<i>Reading 2</i>
22	Itxia	1	% 75,58	Informazioa aurkitzea	<i>Reading 2</i>
23	Itxia	1	% 85,18	Informazioa aurkitzea	<i>Reading 2</i>
24	Itxia	1	% 77,14	Informazioa interpretatzea	<i>Reading 2</i>
25	Itxia	1	% 69,51	Informazioa interpretatzea	<i>Reading 2</i>
26	Itxia	1	% 78,53	Informazioa interpretatzea	<i>Reading 2</i>
27	Itxia	1	% 69,10	Informazioa integratzea: ulermen orokorra	<i>Reading 2</i>
28	Itxia	1	% 53,08	Informazioa integratzea: ulermen orokorra	<i>Reading 2</i>
29	Irekia	12	% 59,59	Idazmena	<i>Writing</i>
GUZTIRA		42			

5.2. Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin bat arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna neurtzen duen trebetasunak ematen du, erreferentziako testuaren konplexutasunak, aktibatu beharreko ataza edo prozesu motak, galdera motak (itxia edo irekia, item bat edo gehiago dituen, gauzak identifikatu, lotu, ordenatu... beharrekoak). Aldi berean, elementu hauek guztiek gaitasun mailak zehazten dituzte (haitan sartzen ditugu ikasleak). Ingeleseko hizkuntza gaitasunaren maila bakoitzaren azalpena **5.3.** atalean dago.

Oker erantzundako galderak edo erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderak adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak edo zein diren testurik zailenak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek eskura dute galdera bakoitzaren azterketa xehatua, bai zuzenketa koadernoetan, bai diagnostikoari laguntzeko eranskinetan. Informazio honek emaitzak testuinguruan jartzen ditu eta ebaluazio diagnostikoak bultzatu behar duen prozesu hau - hausnartu eta hobekuntzak proposatzekoa- bideratu behar du.

Azterketa eta hausnarketarako prozesuan, honako alderdi hauen antzekoei errepara diezaiekegu, adibidez. Ikusi dugu zuzen asmatutakoen ehunekoa eta batezbestekoa, oro har, altuak izan direla. Beraz, datuak gogobetezkoak dira. Bi galderetan soilik zuzen erantzun dituzten ikasleen ehunekoa % 50etik beherakoa izan da, biak ala biak Reading 1ekoak. Aztertzen baditugu % 55 baino gutxiago zuzen erantzundakoekin batera, guztira sei, lau Reading 1ekoak, 1 Listeningekoa eta 1 Reading 2koa dira. Neurtzen dituzten irakurketa prozesuei dagokienez, hiruk informazioa aurkitu eta lortzeko prozesuekin dute zerikusia, batek interpretatzearekin, batek informazioa integratzearekin eta azkenak, berriz, formaren gainean hausnartzearekin. Hortik ondoriozta dezakegu testurik zailena etena izan dela eta galderarik zailena, berriz, irekia (% 18,8). Hala ere, ondorioa positiboa da, ulermen orokorra edo ideien integrazioa, oro har, berekin zekarten galderak % 60tik gorako erantzun zuzenak izan dituzte (aipatu dugun Reading 2koak izan ezik (% 53,08)). Desbideratze tipikoa moderatua da, 5.4 atalean ikusi dugun bezala: 7,5.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten

ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen diskriminazio indizea erakusten du:

Hizkuntza gaitasuna, ingelesez		
Trebetasuna	Galdera zenbakia	Diskriminazio indizea
Listening	1	0,143
	2	0,253
	3	0,544
	4	0,343
	5	0,351
	6	0,437
	7	0,401
	8	0,392
Reading 1	9	0,375
	10	0,317
	11	0,093
	12	0,283
	13	0,360
	14	0,444
	15	0,418
	16	0,386
	17	0,348
Reading 2	18	0,258
	19	0,466
	20	0,329
	21	0,461
	22	0,385
	23	0,401

	24	0,450
	25	0,432
	26	0,404
	27	0,456
	28	0,219
Writing	29	0,679

5.3. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horren arabera, 1. eta 2. mailetako ikasleek ez dute lortu gaitasuna, eta 3. edo 3+. mailakoek espero den gaitasun-maila dute. Oro har, maila bakoitzari lotutako gaitasunak honako hauek dira:

1. maila	2. maila	3. maila	3+. maila
<p>Maila honetako ikaslea gai da informazioa ulertzeko baldin eta literala, esplizitua eta erraz lokalizatzeko modukoa bada. Hala ere, zailtasunak ditu interpretazio-maila jakin bat eskatzen duten galderei erantzuteko. Testu etenak arazotsuak izan daitezke.</p>	<p>Maila honetako ikasleak zuzen erantzuten die hitzez hitzeko informazioa ulertzea eskatzen duten galderei, baita ulermen maila handiagoa eskatzen duten testuak edo testu etenak direnean ere.</p>	<p>Maila honetako ikasleak zuzen erantzuten ditu informazioa bilatzearekin zerikusia duten galderak (informazio hori literala izan edo ez) eta, gainera, edukiaren banaketa ulertzen du, eta badaki non aurkitu informazio berariazko bat testu eten batean.</p>	<p>Maila honetako ikasleak zuzen erantzuten ditu informazioa bilatzearekin zerikusia duten galderak (informazio hori literala izan edo ez) eta, gainera, edukiaren banaketa ulertzen du, eta badaki non aurkitu informazio berariazko bat testu eten batean.</p>
<p>Ez ditu ulertzen zikloan landutako hitz oso oinarrizkoak.</p>	<p>Maila honetako lexikoa 1. mailakoa baino zabalagoa da. Nolanahi ere, zailtasunak ditu testuetan bildutako informazioa interpretatzerakoan. Ez da gai inferentzia konplexuak egiteko.</p>	<p>Testua bere osotasunean ulertzen du eta hitzez haratago interpretatzeko gai da.</p>	<p>Konplexuagoak diren horiek ere ebazten ditu, interpretazio-maila handiagoa eskatzen dutenak, edo hiztegi edo egitura sintaktiko konplexuagoko testuetakoak.</p>
<p>Gai da soil-soilik pertsonaia baten edo fotograma baten deskribapen oso labur eta oinarrizkoa idazteko: gramatikako hutsegite anitz egiten ditu, idazten duena ulertzeko oztopo direnak.</p>	<p>Idaztean, zailtasunak ditu pertsonaia bat edo fotograma bat deskribatzeko, eta idazten duena ulertzea galarazten ahal duten hutsegiteak ditu.</p>	<p>Aurreko mailetan baino hiztegi zabalagoa ulertzen du eta horrek aukera ematen dio egoerak eta ekintzak ulertzeko ingurua zabaltzeko.</p>	<p>Gai da pertsonaia baten edo fotograma baten oinarrizko ezaugarriak deskribatzeko zikloaren mailari dagokion testu koherente eta zuzen baten bitartez.</p>
<p>Gainera, zailtasun handiak ditu audio mezuak ulertzeko.</p>	<p>Gai da audio mezu simple batzuk ulertzeko.</p>	<p>Gai da pertsonaia baten edo fotograma baten oinarrizko ezaugarriak deskribatzeko, testua ulertzea eragozten ez duen akatsen bat egiten badu ere.</p>	<p>Arazorik gabe ulertzen ditu zikloaren mailari dagozkion audio mezuak.</p>
		<p>Gai da zikloari dagozkion audio mezuak ulertzeko.</p>	<p>Laburbilduz, gaitasun handia erakusten du ebaluaturiko hiru trebetasunetan.</p>

Mailen zenbakizko zehaztapena

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

	Hizkuntza gaitasuna, ingelesez Puntuazio-tarteak
1. maila	[0, 18)
2. maila	[18, 25)
3. maila	[25, 38)
3+. maila	[38, 42]

5.4. Emaitza orokorrak

Estatistikoen taula (Hizkuntza gaitasuna, ingelesez)

Gaitasun proben kopurua	6941
Neska kopurua	3410
Mutil kopurua	3531
Puntuazio txikiena	1
Puntuazio handiena	42
Batez besteko puntuazioa	28,9
Desbideratze tipikoa	7,5
Nesken batezbestekoa	30,0
Mutilen batezbestekoa	27,9
1. maila (%)	8,1
2. maila (%)	19,8
3. maila (%)	59,5
3+. maila (%)	12,5


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 1 izan da eta handiena 42 puntu.
- Desbideratze tipikoa 7,5 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 25,95), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun moderatua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako premiak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

Hizkuntza gaitasuna, ingelesez	
Maila bakoitzean dauden ikasleen ehunekoa	
1. maila	% 8,1
2. maila	% 19,8
3. maila	% 59,5
3+. maila	% 12,5




Alderdi azpimarragarriak:

- Lau ikasletik ia hiruk (% 72) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatzeko mailari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko. % 12,5ek bikaitasun maila erdietsi dute.
- % 8,1ek neurri bereziak behar ditu, mailarik baxuenean dagoelako.
- Bost ikasletik ia bat (% 19,8) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten du.

Banaketa, generoaren arabera


Neskek mutilek baino 2,1 puntu gehiago erdietsi dute batez beste. Alde hori moderatutzat har daiteke, desbideratze tipikoaren laurdena baino zertxobait gehiago baita (DT = 7,5).

Hizkuntza gaitasuna, ingelesez	
Batez besteko puntuazioa	
Neskak	30,0
Mutilak	27,9



5.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazioen banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da asimetrikoa ezker aldetik, eta kamutsagoa.

- Fisherren asimetria koefizientea -0,502 da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoia.
- Fisherren kurtosi koefizientea -0,344 da. Hori da kamutsagoa (platikurtikoa) izatearen arrazoia.

6. Aldagai sozioekonomiko eta kulturala

Edizio honetan ikasleek aldagai soziokultural eta ekonomikoen gaineko galdera-sorta bete dute eta hartatik atera da ISEK indize sozioekonomiko eta kulturala kalkulatzeko informazioa.

6.1. ISEKa nola lortu eta haren erabilgarritasuna

Galdera-sortaren xede nagusia indize sozioekonomiko eta kulturala (ISEK) egiteko informazioa biltzea da. Indize honek kontuan hartzen dituen aldagaiak dira PISA proiektuan eta Hezkuntza Ebaluazioaren Institutu Nazionalak autonomia erkidegoekin elkarlanean egindako ebaluazio diagnostiko orokorretan erabilitako antzekoak.

Indizea prestatzeko aldagaiak lau hauek dira:

1. Gurasoen edo legezko tutoreen ikasketa-maila (bietako edozeinek duen handiena hartzen da kontuan), behetik gorako 5 kategoriaren sailkaturik dagoena.
2. Gurasoek edo legezko tutoreek egiten duten lana (bietako edozeinen lan-kategoriarik handiena hartzen da kontuan, betiere horietariko batek lan egin eta soldata bat irabazten badu). Behetik gorako 5 kategoriatan dago sailkatuta (0 balioa ematen da bietako batek ere ez badu lan egiten eta soldata bat irabazten).
3. Etxean dituzten irakurtzeko liburuen kopurua, behetik gorako 5 kategoriatan sailkaturik.
4. Zenbait kontsumo ondasun etxean ba ote dituzten. Honako bost hauek hartu dira kontuan: mahai gaineko ordenagailua edo ordenagailu eramangarria, Interneteko sarbidea, irakurketarako liburuak, ikasten lagunduko dizuten entziklopediak edo kontsulta-liburuak (paperean edo digitalak), aldizkari espezializatuak (informatika, natura, literatura, etab.), tableta, Interneteko sarbidea duen telefono mugikorra eta norberak bakarrik erabiltzeko logela. Oti 5era bitarteko balioak eman daitezke, etxean dauden kontsumoko ondasunen arabera.

Pisu bera eman zaie aurreko lau aldagaiei, halako moldez non haien balioak zenbatuta lortzen baita ikasle bakoitzari dagokion ISEKaren banakako balioa (banakako ISEKaren zuzeneko puntuazioak). Ikasleei esleituriko puntuazioak eraldatu egin dira, batez bestekoa 0 eta desbideratze tipikoa 1 dituen banaketa normalaren arabera, hartara, 0 izanen delarik Nafarroaren batez bestekoa (banakako ISEKaren puntuazio estandarizatuak). Ikastetxe bakoitzari ISEK balio bat esleitu zaio; hots, ikastetxe horretako ikasleen puntuazioen batez bestekoa (ikastetxeko ISEKa).

Ebaluazio azterlan guztietan egiaztatzen ari da ikasleek probetan duten errendimenduaren eta haien maila soziokulturalaren artean korrelazio moderatua dagoela. Txosten honen **6.3.** atalean ematen dira, ikastetxeetako batez besteko puntuazioen eta batez besteko ISEK balioen arteko korrelazioak, gaitasun bakoitzaren arabera banatuta, eta ikastetxeko Errendimendua-ISEKa erregresio-zuzenen grafikoak.

- Errendimenduaren eta ikastetxeko ISEKaren arteko korrelazio koefizienteek adierazten dute badela halako korrelazio positibo bat errendimenduaren eta ikastetxeko ISEKaren artean (zenbat eta 1etik hurbilago egon, koefizientearen balioa orduan eta indartsuagoa).

Gaitasuna	Korrelazio koefizientea
Hizkuntza gaitasuna, gaztelaniaz	0,445
Hizkuntza gaitasuna, euskaraz	0,047
Matematika gaitasuna	0,446
Ingeleseko hizkuntza gaitasuna	0,389

- "Errendimendua-Ikastetxeko ISEKa" izeneko erregresio-zuzenek malda positiboa dute; horrek esan nahi du ikastetxeko ISEKa handitu ahala batez besteko errendimenduak ere gora egiten duela. Espero izatekoa den eraginaren intentsitatea gaitasun batetik bestera aldatzen da: ikastetxeko ISEKaren balioa igotzen den unitate bakoitza loturik dago, ikastetxearen batez besteko puntuazioaren igoerarekin. Hurrengo tauletan datu hori gradiente modura ageri da.

Gaitasuna	Erregresio-zuzenaren malda (gradiente, puntu/ISEK unitatea)
Hizkuntza gaitasuna, gaztelaniaz	39,94
Hizkuntza gaitasuna, euskaraz	7,09
Matematika gaitasuna	45,40
Hizkuntza gaitasuna, ingelesez	33,77

- Ikastetxeko ISEKak ikastetxeen batez bestekoen arteko bariantzaren edo aldeen parte bat azaltzen du. Ondoko biderkadurak ematen du bariantza azaldua: $100 \cdot R^2$, non R^2 erregresio-grafikoetan ageri den determinazio-koefizientea den; biderkadura hori gaitasunaren arabera aldatzen da:

Gaitasuna	Bariantza azalduaren ($100 \cdot R^2$) ehunekoa (%)
Hizkuntza gaitasuna, gaztelaniaz	19,80
Hizkuntza gaitasuna, euskaraz	0,23
Matematika gaitasuna	19,86
Hizkuntza gaitasuna, ingelesez	15,15

Esan behar da ISEKa ez dela errendimendua azaltzen duen aldagaia, baina aldagai iragarle modura erabiltzen da, hau da, ikastetxeei puntuazioak eman dakizkieke beren ISEKaren arabera eta gero ikastetxeak lortutako balio hori benetan lortutako emaitzarekin konparatu. Ikastetxeetako txostenetan ikastetxeko puntuazioa irudikatu da "ISEK-Errendimendua" motako erregresio-grafikoan; horri esker, lortutako puntuazioa ISEK balioaren arabera iragartzen ahal den puntuazioarekin erka dezakegu. Grafiko horretan ikastetxeek duten posizioari dagokionez, 3 kasu desberdin ditugu:


- o Erregresio-zuzena baino gorago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEKa) arabera iragarritakoa baino batezbesteko handiagoa lortu dutenak.
- o Erregresio-zuzena baino beherago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batezbesteko txikiagoa lortu dutenak.
- o Erregresio-zuzenean berean dauden ikastetxeak: iragarritako puntuazioa lortu dutenak.

Erregresioko grafikoetako informazioak testuinguruan kokatzen ditu ikastetxeen emaitza orokorrak, ikastetxeko ikasleen batez besteko ezaugarri soziokulturalen arabera, eta haien emaitzak aukera ematen du Nafarroako batezbestekoarekin modu justuagoan konparatzeko. ISEKa 0 baino handiagoa duen ikastetxe batek batez besteko puntuazioa (500 puntu) baino puntuazio handiagoa lortu beharko luke eta ISEKa 0 baino txikiagoa duen ikastetxe batek 500 puntutik beherako batez besteko puntuazioa lortzea espero izatekoa da. Baina ikusten ari gara ez dela beti iragarpen generiko hori betetzen, eskolako errendimenduan izaten baitira beste aldagai batzuk, hala nola, norberaren lana, ikasteko estrategiak, familiako itxaropenak, beren irakasleen itxaropenak eta abar.

Ikastetxe bakoitzak dituen ISEK balioa eta erregresio-zuzenarekiko kokapena gorabehera, guztietan hobetu daiteke lortutako emaitza, bi aldagai horien arteko erlazioa ez baita determinista edo funtzionala; izan badira ikasleen errendimenduan eragiten duten beste aldagai batzuk. Ondorio horretara iritsi gaitzke, erregresio-grafikoetan ikusten baitugu ISEK bera duten ikastetxeek emaitza desberdinak lortzen dituztela eta, beraz, ekitate desberdina dutela, hots, ikasleen maila sozioekonomiko eta kultural txikiagoagatik sortutako hasierako desabantailak konpentsatzeko gaitasun desberdina. Ikastetxeko zer aldagaik eragiten duten modu batera edo bestera ikertzea interesgarria da ikastetxean berean hobekuntza neurriak hartzeko. Hala eginez gero, hezkuntza sistema osoa hobetuko litzateke.

6.2. ISEKaren banaketa


Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko banakako ISEKaren puntuazio zuzenen banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuazioarik txikiena 2 izan da eta handiena 20 puntu.
- Desbideratze tipikoa 3,694 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 29,25), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun moderatua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.
- Banakako ISEKaren puntuazio zuzenen banaketa, banaketa normalarekin alderatuta, asimetrikoa gertatu da ezker aldetik, eta kamutsagoa.
 - Fisherren asimetria koefizientea -0,302 da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoia.
 - Fisherren kurtosi koefizientea -0,557 da. Hori da kamutsagoa (platikurtikoa) izatearen arrazoia.

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko banakako ISEKaren puntuazio estandarizatuaren banaketa. Kontuan hartu horren forma aurrekoarena bera dela, aipatu behar bada ere balioak -2,8789 eta 1,9943 artekoak dituela, batez bestekoa 0 duela eta desbideratze tipikoa, berriz, 1.




Ebaluazioan sartuta dauden 211 zentroetako bakoitzari "ikastetxeko ISEKa" eman zaio; ISEK horren balioa lortzeko, ebaluatutako ikasleen banakako ISEK estandarizatuaren batezbestekoa egin da. Ikastetxeek -2,0667 eta +0,9678 arteko ISEK balioak dituzte; horrek agerian uzten du ikastetxeen batez besteko baldintza sozioekonomikoak askotarikoak direla.

Grafikoan irudikatzen dira ikastetxeko ISEK balioak. Ikastetxeak 4 taldetan sailkatu dira (ISEK<Q1, ISEK<Q2, ISEK<Q3 eta ISEK>Q3), ikastetxeen ISEKaren maiztasun banaketaren kuartilak bereizten dituzten 3 atalaseen arabera.

Sailkapen honetan, 53 ikastetxek dituzte lehen kuartileko ISEK balioak (beheko maila); 52 ikastetxek, bigarren kuartileko ISEK balioak (maila ertain-behekoa); 54 ikastetxek,

hirugarren kuartilekoak (maila ertain-goikoa), eta 52 ikastetxek, goiko kuartilekoak (goiko maila).




6.3. Erregresio-zuzenak

Ikastetxeen tamaina askotarikoa denez (1etik 136 ikaslera bitarte), erregresio-zuzenaren koefizienteak lortu dira ikastetxe bakoitzaren datuak haztatuz, ikastetxe horietako bakoitzean ebaluatutako ikasleen kopuruaren arabera. Haztapan horrek grafikoetan azaldutako koefizienteak adierazgarriago egiten ditu eta, beraz, ondorio fidagarriagoak ateratzen laguntzen du.

Jarraian azaltzen dira gaitasun bakoitzerako grafikoak. Ardatz horizontalean irudikatu dira "Ikastetxeko ISEKa"-k eta ardatz bertikalean, berriz, ikastetxe bakoitzaren batez besteko puntuazio normalizatua gaitasun bakoitzean. Puntu bakoitzak ikastetxe bat irudikatzen du eta erdiko puntua (ISEK = 0, puntuazio normalizatua = 500) Nafarroako batezbestekoari dagokio.


Erregresio grafikoa: Ikastetxeko ISEKa-Hizkuntza gaitasuna, gaztelaniaz



Gaztelaniazko hizkuntza gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 354,10 puntukoa da.

	Hizkuntza gaitasuna, gaztelaniaz
R ² determinazio koefizientea	0,1980
Bariantza azalduaren (100*R ²) ehunekoa (%)	19,80
Gradientea	39,94
R korrelazio koefizientea	0,445


Erregresio grafikoa: Ikastetxeko ISEKa-Hizkuntza gaitasuna, euskaraz



Euskarazko hizkuntza gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 311,49 puntukoa da.

	Hizkuntza gaitasuna, euskaraz
R ² determinazio koefizientea	0,0023
Bariantza azalduaren (100*R2) ehunekoa (%)	0,23
Gradientea	7,09
R korrelazio koefizientea	0,047


Erregresio grafikoa: Ikastetxeko ISEKa-Matematika gaitasuna



Matematika gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazio normalizatuen arteko alderik handiena 333,54 puntukoa da.

	Matematika gaitasuna
R² determinazio koefizientea	0,1986
Bariantza azalduaren (100*R2) ehunekoa (%)	19,86
Gradientea	45,40
R korrelazio koefizientea	0,446

Erregresio grafikoa: Ikastetxeko ISEKa Hizkuntza gaitasuna, ingelesez



Ingelesezko hizkuntza gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazio normalizatuen arteko alderik handiena 264,88 puntukoa da.

	Hizkuntza gaitasuna, ingelesez
R² determinazio koefizientea	0,1515
Bariantza azalduaren (100*R2) ehunekoa (%)	15,15
Gradiente	33,77
R korrelazio koefizientea	0,389

Iruña, 2021eko ekaina

Ebaluazio Atala

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Nafarroako Gobernuoko Hezkuntza Departamentua